

Gaueko ele ixilen balada (instr.)

B. Lertxundi.



Udazken koloretan

B. Lertxundi

Udazken koloretan,
landen lurrinak zeharkatuz,
hitaz oroit
eta higan nauk.

Zuhaitz biluziaren
gerizpean orpondoa,
orbelaren hilobi,
horiz eta gorriz
dena lokaturik.

Eskuratu hostoa
xume bezain eder,
hain soila bere heriotzean,
zuhaitz guztiaren bizkortasunez
hain betea,
non erortze honen duintasunak
hiri kantatzera naraman.

Berriro zuhaitzari
so natzaiok, kezkaturik ote?...
joate askearen oparotasunean,
betikotasunaren irria zirudik.

Gatibu naukan denborak,
bere baitan egositako
ametsetaz isekaz
bailegoan.

Udazken koloretan,
landen lurrinak zeharkatuz,
hitaz oroit eta higan nauk,
hain soil hire heriotzean,
hain xume, adiorik gabeko
partitzean.



Zehazten erraza naiz

Hitzak: Fernando Pessoa // Musika: Benito Lertxundi

Baldin eta, ni hil eta gero,
nere bizitza idatzi nahi balute,
errazagorik ez da ezer
bi egun besterik ez dute:
jaiotza eta heriotza egunak.
Bien artekoak
nereak dira.

Zehazten erraza naiz.
Deabrudun batek bezala ikusi nuen.
Gauzak xamurkeriarik gabe maitatu nituen.
Ez bainuen bete ezinezko ezeren beharrik izan,
ez bainintzen inoiz lausotu.

Entzutea neretzat
ez zen ikustearen lagungarri baino izan.
Gauzak benetakoak direla ulertu nuen
eta denak ezberdinak bata bestearengandik;
begiekien ulertu ere, inoiz ez pentsatzearekin.
Guzti hau pentsatzearekin ulertzea,
denak berdinak aurkitzea litzateke.

Egun batez logaletu egin nintzen,
edozein haur bezala.
Begiak itxi eta lo egin nuen.
Horretaz gain,
Naturären poeta bakarra izan nintzen.



Gartxot (instr.)


Musika: Pello Ramirez

Nere ate ondoan

Hitzak: Fernando Pessoa // Musika: Benito Lertxundi

Haur ezezagun eta zikin
nere ate ondoan jolasean zu,
ez dizut adierazpen mezurik dakarkidazun galdetzen.
Ganora aurkitzen dizut lehen inoiz ikusi ez zaitudalako,
eta, noski, garbia egon ahal bazina,
beste haur bat izango zinateke,
eta ez zinateke hona etorriko.
Jolas zaitetz hautsetan, jolas!
Zure agerpena begiekien bakarrik estimatzen dut.
Gauza bat beti lehen aldiz ikustea
ezagutzea baino gehiago da,
ezagutzea, inoiz lehen aldiz ez ikustea
bezala baita.
Eta inoiz lehen aldiz ez ikustea
bakarrik kontatzen entzutea da.
Haur honen zikin egoteko era
ez da besteena bezalako.
Jolasi! Eskuan sartzen zaitzun harri bat hartuaz,
badakizu eskuan sartzen zaitzula.
Zein da, ziurtasun handiagora
iristen den jakinduria?
Bakar bat ere ez, eta bakar bati ere
ezinezkoa zaito nere ate ondora jolastera etortzea.





Kaixo ardizain

Hitzak: Fernando Pessoa // Musika: Benito Lertxundi

"Kaixo, ardi zain,
horra hor bide ertza.
Zer esaten dizu haizeak?"

"Haizea dela, eta igaro egiten dela,
eta igaro zela lehen,
haizea dela, eta igaro egiten dela,
eta igaroko dela gero.

Eta zuri, zer esaten dizu?"
"Hori baino askoz gehiago,
beste gauza askotaz mintzo zait.
Oroitzapen eta bakarminetaz
Eta behin ere izan ez ziren gauzetaz."

"Ez zenuen inoiz haizea igarotzen aditu.
Haizea, haizeaz bakarrik mintzo da.
Gezurra da entzun zeniona,
eta gezurra zugan dago."

Gaztetarzunak (instr.)
herrikoa

Bihotz

B.Lertxundi

Gela ilun batean
bizi zara bihotz,
sineskeriaz elikatuz,
berrezia zarela uste duzu.

Zeurekoi asmoak jorratuz,
hilezkortasuna amets eta...
zalantza itzalak
ikaratzaren zaitu.

Bihotz guztiak zara zugan,
baina ez zara ohartzen.
Bihotz ororen poz eta mina
daramatzazu zure taupadetan,
baina oraindik ez duzu ikusi,
balio bilketan lausoturik
baitzaude.

Hilezkor izan nahi duzu
eta hilezkor zara,
hilezkor bihotz guztietan,
bihotzean...
bizi, irri, nigar, heriotz, bihotz.



Baldorba

Hitzak: J.A.Urbeltz // Musika: B.Lertxundi

Ezkil gabeko elizen
eremu emankorra,
giza murzuriko
zure ardientzat.

Oi baldorba!
Eguzki eta haize idoc,
mahats-ardo ibai,
galburuarena.

Lur gorri, harri landu,
mailu eta xixelaren kantu.
gitarrakzo alakiketan,
armeniako kanun ahots urratuen.



Oi baldorba!
Esazu nor zen bidetik
baztertu zintuen madarikatua!

Zure irriño erromanikoa
erdi izotzu eta leloturik
utzi zuen madarikatuaren
izena nahi dut.

Oi baldorba!
Esazu nor zen bidetik
baztertu zintuen madarikatua!

Oi baldorba!
Zutaz oroit eta
zuri nagozu.

Kantu bat laburra da eta
pentasa zuk,
esaten ez dizudan hartaz.

Oi baldorba!
Esazu nor zen bidetik
baztertu zintuen
madarikatua.

Egunak gauean

Hitzak: Joa Ramon Urarte // Musika: Benito Lertxundi

Hainbaste urte igaro dira,
hainbaste gertakizun,
nere buruan kokatu zen enbata hartatik.

Nere kostatik urrun, Gran Solen.
Egun bat urpean,
hiru igeri,
eta bederatzii amasketan.

Egunetan islandar barku bat agurtzen dut.
Asteak lotan.
Asteak urgainean.

Harriduraz, legatzen zilarrezko sabelpari so,
beren bizkar iheskorra ferekatu nahi dut,
baina, ez zaitze hurbildu esaten didate.

Ehun egun argirik gabe.
Ehun egun ur-dantzan.
Errainuei arpoiak botetz.

Donegall Squaren
kantuak entzuten ditudan bitartean,
Golkoko nigarra,
Donegall Squaren
Van Morrison entzuten dudan bitartean,
auhena Golkoko plazetan.

Egunak euritan.
Gauak igeri.
Nere begien bila dabilzan hegaztiak.
Itsas izotzaren kilapean ezkututzen naiz.





Itsasoari begira

Hitzak: Ion Maia // Musika: B.Lertxundi

Zazpi mendeko gauean gaude.
Gure lore eta sasi,
irrintzi, oihu, ele eta ulu,
marmario eta garrasi,
haize, enbata, brisa, galerna,
gaur garbi, bihar nahasi,
xake taularen zuri beltzetan
arrats gozo egun gazi.
Ai itsasorik ez bageneuka
zeri so negarrez hasi.


Gure zuhaitza landatu dugu
amildegi muturrean.
Adarrak dauzka ertzetik harantz;
sustraiak, berriz, lurlean,
bihotz hesteak estu helduaz
esku baten ahurrean.
Bertsu barriak jartzera noa
bere indar laburrean,
nola malko bat isuritzen den
itsasoaren aurrean.

Nola haizea ur azalean
eguzkiaren irteeran,
nola kaiopak zorabioan
itsas enbata bezperan,
pentsatzen nago gu ere berdin
ibiltzen ez ote geran.
Susmoa daukat patua bera
itsasoa ez ote dan,
libre ta zabal dugu aurrean
eta ezin dugu edan.

Heldu herria sustraietatik,
tira eta gora jaso.
Jarri Kantauri aurrean eta
mantendu zutik hari so,
ispilu hortan ikus gatezen
herriz herri, auzoz auzo.
Zauriak gatz ez ditzagun,
malloak urez eraso.
Libre ta zabal iria txiki bat
salbatuko da akaso.

Azken amasa eman nahi nuke,
eguna hiltzen ari da.
Azken amasa eman nahi nuke,
bertsoak entzuten dira.
Azken amasa eman nahi nuke,
kantari nator herrira.
Azken amasa ematen degu
eguzkitik eguzkira.
Azken amasa eman nahi nuke
itsasoari begira.





1. *Itsasoan laino dago (instr.) / Nere ekialdean*
2. *Zergatik utzi kantatzeari*
3. *Dihala / Ni sahatza bezala*
4. *Itoitz*
5. *Oro irriño bat*
6. *Ekaitza*
7. *Nere herriko neskatxa maite*
8. *Iluna denerako*
9. *Bizkaia maite*
10. *Gure bide galduak / Zenbat gera*

2

Itsasoan laino dago (instr.)

herrikola



Nere ekialdean

*Oniko trenerotik Txiki Larrañagari
Hitzak eta musika: Benito Lertxundi*

Urdina itsasoari irailak eman zion,
eta itsasoak nerekin kaio bat egin zuen,
orobat itsaso den kaioa.

Ortzimugaren bila doan treineruarekin batera,
helmugarik gabeko ekitaldira abiatzen naiz.
Eta arraunen uherak bezala,
hiltzen eta birjaiotzen natzaio
hegaldi bakoitzari,
ezagarririk utzi gabe,
ez baitira loturak baino.

Ilunabarretan, harrabots antzuetatik
iheska doazenekin elkartzen naiz,
eta zalanztan diren kezkatiek
itxaropenez elikatzen naute.

Nere bihotzean mugagabetasunarekin
batzen nauen hazia daramat,
eta egunsenti berriak pitzen ditu
nere ekialdean.

Eta behin gauaren besoetan,
isiltasunaren ahotsa aditzean,
euria ari du nere begietan,
errukirik jaso ez dutenen saminez
beterik baitaude.

Urdina itsasoari irailak eman zion,
eta itsasoak nerekin kaio bat egin zuen,
orobat itsaso den kaioa.

Zergatik utzi kantatzeari

Hitzak: Anna Warner
Musika: Pete Seeger
Moldaketa: Benito Lertxundi

Nere bizitza, munduko arranguren gainetik, amaezinezko kantu batean, airos doa. Nere bizitza, kantu batean. Zergatik utzi behar ote diot, zergatik utzi kantatzeari?

Urrun bada ere, sorkuntza berri bat iragartzen duen doinu hori entzuten dut, harrabots eta borroka ororen artean. Zergatik utzi behar ote diot, zergatik utzi kantatzeari?


Ekaitza, ondoan ziztuka ari bada, zer axolal! Egia bizirik dela badakit, bizirik dela badakit. Zergatik utzi behar ote diot, zergatik utzi kantatzeari?

Zer axola nere inguruan iluna hertsitzen bada? Gauean kantak sortzen ditu, gauean kantak sortzen ditu. Zergatik utzi behar ote diot, zergatik utzi kantatzeari?

Nere pake kuttunena izutuko duen trumoirik ez da, harkaitz horri lotzen natzaion, lotzen natzaion bitartean. Zergatik utzi behar ote diot, zergatik utzi kantatzeari?

Amodioa, zeru-lurren jauna bada, jauna bada zergatik utzi behar ote diot, zergatik utzi kantatzeari? Zergatik utzi behar ote diot, zergatik utzi kantatzeari?

"OLD DEVIL TIME"
(C)A. PETER SEEGER
Copyright by WESTMINSTER MUSIC LTD.
Edición autorizada a
TRIO MUSICA ESPAÑA, S.L. // EDICIONES MUSICALES CLIPPER S. L. - Barcelona (Spain)
All Rights Reserved. Used By Permission.



Oihala (instr.)

Musika: Pello Ramirez

Ni, sahatza bezala

Hitzak: Benito Lertxundi // Musika: Levy Shahar

Ni, sahatza bezala, Ludiari ernaitu ohi zaión kimu berri bat naiz, sortzen eta hitzen etengabe doazen sentimenduen haizearekin dantzan.

Ni, poz eta minen zuhatzetik edonaz, berdetutako igali bat naiz, hosto bakoitzean, mallo bakoitzean, zauri minberetan loratzen dena.

Ni, munduaren grinak jasotzen dituen ibai luze eta mugikorra naiz. Itsaso birjinen arima urdinen sabel emankorretara doana.



Itoitz

Hitzak: Olatz Zugasti // Musika: Herrikoia/Olatz Zugasti

Laino beltzak zeruan,
dardara lurrean,
ltoitzko hormetan
irainak eragin zauriak.
Laino beltzak zeruan
otoitz bat ezpainetan.

Oi gure pikondoa,
gure pikondoa,
zure itzal oparhoa
min eta grina ororen loa.
Oi gure pikondoa,
ukamenean itoa.

Gure baratze zaharra,
gure baratze zaharra,
urpetikan darion negarra
bedi belatsekin airera.
Laino beltzak zeruan
otoitz bat ezpainetan.



Oro irriño bat

Hitzak: Benito Lertxundi // Musika: Pello Ramirez

Nere urruneko gogo hedatuz joango da,
ondura ixuriko da nere eskuetara,
zuri begiratuz besarkatuko dut,
duzin ugats xumea eta, agian,
naizen amildegi hotza.

Zura bihotzaren taupada beroen
aurrean agertuko da,
kontaezinezko edertasunez.

Nere asmoaren gerizean maitatuko zaitut,
arrazoi sareen gaindi hegan eginaz,
ilunaren eta beroaren nahaspilean
argi berriez mundu bat sortuz,
nork daki...

Ail oro irriño bat balitz azkenean,
eta uhinek bezala,
ispazterra ferekatuz, bukatu hiltzean

Ekaitza

Hitzak eta musika: B.Lertxundi

Ekaitzak, ekaitzak
hostoak daramazki
zuhaitzak bilutsirik.

Negarra, negarra
heriotz usiaia
inguruan utzirik.

Gure basoko
zuhaitz lehorrek
oraindik irauten dute.

Lurraren babesak
emango die
itxaropeneko bizitza.

Ekaitza, ekaitza
zure indarra
ez da iraunkorra.

Udaberria etorriko da
berarekin loreak.

Bizitza berri bat
etorriko da
lehortuko dira malloak.

Haize leunak laztanduko ditu
gure aurpegi penatuak.

Nere Herriko neskatxa maite

Hitzak eta musika: B.Lertxundi

Nere herriko neskatxa maite
ahoko lorez zaitut gaur laztantzen,
itsaso garden, lur gozoko landare,
kresalaren usain, zeru kolore,
nere bihotzaren taupaden hotsez
zure grazia dut kantatzen.

Bihotz minberen egunsentia
herri sufrituaren lamia,
ipuin zaharren piper eta ezia,
erreak garbien kantu bitxia,
udazken lizenez zaude jantzia
izar zerutarren irria.

Landro artetik itsas geldira
leunki zoazen txori airoa,
amodiozko sentipenaren hatsa
zure ezpainetan loratuz doa,
goizeko ihintzetan belardi zera
eguzkitan zilar dizdira.





Iluna denerako

Hitzak eta musika: B. Lertxundi

Kanta!ta bat ene ezpainetan,
Artizarra keiniuka zeruan,
zure lehen loak hartu zaituenean,
zer ote da zure gogoan?...

Ixuria
izan zara
bizitzaren ibar honetara;
zu zara gure
azala eta
asmo berrien haragia.

Nigan bada
zuretzat egina
iluna denerako aterbea;
zu izango zara
bihotzean dan
suarentzako erretxina.



Bizkaia maite

Hitzak J.A.ingaray // Musika: B.Lertxundi

Bizkaia maite,
atzo goizean ikusi zintudan,
soineko xuriz jantzia,
buruan orlegi, bihotzean sua,
lirain, sendo, eder
nere gogoaren ertzatik pasatzen
zure usain gozoa,
lana, amodioa, itsasoa
nere baitan sartzen.
Atzo goizean entzun nuen
zure berbaren oihartzuna,
zure kantaren fereka,
bihotzean kilika
eta oihartzunaren haunditasunean murgilduz
joan nintzen jauzika, hegaka.

Bart arratsean,
arbasoen baratzairen ondoan,
bertsotan eta dantzan lotu zinen,
alai, piper eta gatza,
sabel emankorra.
Bizkaia maite,
atzo goizean ikusi zintudan,
soineko xuriz jantzia,
buruan orlegi, bihotzean sua,
olerkari penatuaren gozo eta mina,
amodio eta kanta,
zure berba leun,
zure gatzaren bizia,
zure burdinaren gorria
dira gaur neretzat aterbe.



Gure bide galduak

Hitzak eta musika: B. Lertxundi

Gu gazteok gaur gabiltza
mundu galdu honetan,
gerra bat barruan dugula
zer egin jakin gabe.
Gurasoen mundu aldrebes hau
ez dugu onartzen,
diruaren morroi izaten
erakutsi digute.
Illunpe horrek
bakardade galduan utzi gaitu,
argirik gabeko bidsak
etorkizunik ez du,
bizimodu lasai batengatik
idealak galdu,
bizitzaren gauz ederrenak
dizkigute zapaldu.

Maitasun hitzak nahi nituzke esan
bainan gaur ezin dut
gure bide galduak
kalte hau ekarri dit.



Zenbat gera?

Hitzak eta musika: B. Lertxundi

Zenbat gera?
Lau, bat,
hiru, bost, zazpi?

Zer egin dugu? Ezer ez.
Zer egiten dugu? Alkar jo.
Zer egingo dugu? Alkar hil?...

Gure asmoak, esperantzak,
herria, askatasuna,
justizia, pakea,
egia, maitasuna,
mitoak, hitz hutsak.

Zenbat gera...
Lau, bat,
hiru, bost, zazpi?

Zer egin dugu? Ezer ez.
Zer egiten dugu? Alkar jo.
Zer egingo dugu? Alkar hil?...

Hori ez!... Hori ez!... Hori ez!...